



# NAFARROAKO ETXEKO LANGILEEN ELKARTEA ELKARRIZKETA

Rosa Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko kidea da. Bederatzi urte daramatza etxeko langile gisa. 2008ko krisiak bananduta eta garai hartan adingabea zen seme batekin harrapatu zuen eta lanaldi partzialeko lanak langabeziaren prestazioarekin uztartu beharrean. Astean ordu batzuez lan egitea eskaini zioten, desgaitasuna duen emakume batentzat laguntzaile pertsonal gisa, eta urtebete geroago, pertsona horrek berak astean 30 orduz lan egitea eskaini zion, Gizarte Segurantzari alta emanda. Lan-egoera ikusita, baietz esan zuen, eta gaur arte. Baieztatu digu beste edozein lan egin ahalko lukeen bezalaxe lan egiten duela sektore honetan, "nire lana beste edozein lan bezain duina delako". Azaldu duenez, lan- eta soldata-baldintzak dira beste lan batzuekin alderatuta desberdinak direnak. Hurrengo elkarrizketan, sektore horren lan-egoera, koronabirusaren krisiarekin emandako aldaketak eta kolektibo gisa dituzten eskakizunak azaldu dizkigu.

**Etxeko enplegua lan-sektore oso feminizatua da, eta gehienetan oso prekarizatua: kontraturik gabe, lanaldi partzialak... Zein dira zure lan-baldintzak?** Egunean ordu pare bat lan egiten nuen lehen urtean, kontraturik gabe nengoen eta astero eskura ordaintzen zitzaidan. Bigarren urtetik aurrera luzatu zidaten lanaldia, eta Gizarte Segurantzari alta eman zidaten. Bat etorri zen 2012. urtea zela eta jada derrigorrezkoa zela (enplegatzaileek forrutik pasa arren) Gizarte Segurantzari alta ematea, etxeko eta zaintzako langileentzako erregimen berezian.

**Argi dago lan horiek funtsezkoak direla, baina badirudi testuinguru zehatzaren ondorioz ikusgarriago bilakatu direla. Nola aldatu dira zure lana eta lan-baldintzak koronabirusaren krisia hasi zenetik?** Nire lana dezente aldatu da pandemia honetan, lan gehiago eta presio handiagoarekin egiten dudalako lan, etengabe desinfektatu behar dira lan egiten duten etxeko eremuak. Nirekiko tratua zuzena da, eta krisi honen hasieratik ziurtagiri bat egin zidaten poliziak gelditzen baninduen erakusteko (oraingoz ez naute gelditu, nahiz eta zelatatua sentitzen naizen). Lanerako bidean ere ez da atsegina polizia ezberdinen presentzia nabaritzea, balkoi edo leiho batetik norbaitek oihu egitea.

**Badakigu zuen lankide asko lanik gabe geratu direla, batzuk zaintzen ari ziren pertsona hil delako, beste batzuk familiek badaezpada lanean ez jarraitzea erabaki dutelako. Zer egoeratan daude?** Badira beren enplegatzaileek etxean geratzeko esan dietenak eta ordaindu dietenak, eta badira etxean geratzeko esan dietenak eta ordaindu ez dietenak. Gero, zaintzen duten pertsona hiltzen deneko gaia lotsagarria da, baina ez orain bakarrik, baizik eta lehen ere bai, askori ez baitiote ez kitapenik ez ezer ordaintzen.

**Apirilaren 2an, Ministroen Kontseiluak aparteko diru-laguntza bat onartu zuen etxeko langileentzat. Nola baloratzen duzu gobernuak hartutako erabaki hori?** Prentsan hilabeteko ERTE baten baliokidea den hilabeteko "diru-laguntza" bat onartzen da eta egun oraindik ez dute bideratu. Eta egunen batean ematen badute, soilik Gizarte Segurantzaren alta emanda daudenek edukiko lukete eskubidea.

**Zein dira kolektibo gisa dituzuen exigentziak?** Gure aldarrikapenak guztiontzako paperak, eta guztiek "diru-laguntza" hori eduki ahal izatea dira. Halaber, Nazioarteko Lan Erakundeak osaturiko 189. hitzarmena berrestea eskatzen dugu, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta eman diezaguten; izan ere, gu ez gara gainerako langileak baino gutxiago, ez gara bigarren kategoriako langileak eta ez gara ikusezinak. Gainerako langileen eskubide berberak eskatzen ditugu. Gu gabe ez delako mundua mugitzen.